

2011-01-26an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA
CORPORACIÓN. Día 26-01-2011

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Pedro Lasagabaster Armendáriz
Zinegotziak

Dorleta Leceta Uribetxebarria
Ander Aguiriano Errasti
Begoña Eraña Lazkano
Karmelo Leceta Abasolo
Maidier Otamendi Tolosa
Juan Luis Merino Sanabria
Ignacio Pierrugues Barberán.

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamaikako urtarrilaren hogeita seian, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Pedro Lasagabaster Armendariz alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiet buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Barandiaran, Urrutia eta Salaberria jaunak.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día veintiséis de enero de 2011, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Pedro Lasagabaster Armendariz, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten los Srs. Barandiaran, Urrutia y Salaberria.



1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2010eko abenduaren 29an egindako ohiko bilkuraren eta premiazko ez ohiko bilkuraren aktak onartu dira.

Merino jaunak eskatu du osorik jasotzea aktan bere taldeak ohiko bilkuran aurkeztutako zuzenketa. Eskaera onartu da.

18:40an, eta gai zerrendako hurrengo gaia aztertu baino lehen, Merino jaunak pleno aretoa utzi du.

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK ETA ERABAKIAK

2.1.- ERABAKIAK

2011ko urtarrilaren 20ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

2.2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK

Alkateak ondorengo gaien berri eman du.

2.1.1. Langabezia mailaren jaitsiera Eskoriatzan.

2.1.2. Datorren asteburuan Jasangarritasunari buruzko azoka egingo da Eskoriatzan, gai nagusizat hondakinak izango ditu.

2.1.3. Bidegiko eta Aldundiko ordezkarien bisita autopistako neurri zuzentzaileei eta konpentsazio neurriei buruz hitz egiteko.

2.1.4. Egoitza: Aitor Urrutia Oyangurenek jarritako demandari buruz Eibarko Lan-Arloko Lehen Epaitegiak emandako epaia behin betikoa bihurtu da. Oraingo Patrono Juntak estatutu berrien zirriborro proposamena egin gura du otsailerako, Udalean aztertu eta eztabaidatzeko.

2.1.5. Pentsioen erreforma dela-eta biharko, urtarrilak 27, deitutako greba. Udal langileek greba egin behar dute, eta Alkatea eta bere taldea ere grebaren alde agertu dira eta greba egingo dute.

3. SUKIBIDE S.L.-k jarritako abala itzultzea.

- 2004ko urtarrilaren 27an Foru Aldundiak behin betiko onartu zuen Eskoriatzako planeamenduko arau subsidiarioetako Elorreta 26 HIEari buruzko plan partzialaren testu bateratua.
- Behin betiko onarpenaren eraginkortasuna baldintzatuta zegoen Udalaren eta sustatzailearen arteko konpromisoak zehatz-mehatz betetzeko bermea aurkeztera, berme hori zerbitzuak ezartzeko eta urbanizazio obrak burutzeko beharrezko balioaren % 6a izanik, Plan Partzialean ebaluatutakoaren arabera.



- Arrazoi horregatik, SUKIBIDE, S.L.-k 118.461,11 €-ko abala jarri zuen 2004ko martxoaren 4an.
- Ondoren, eta eraikitzeke zeuden lurzatiei emandako hirigintza lizentziei ezarritako baldintza bezala, bi abal jarri dira, bakoitza 19.531,54 €-koa.
- Orain, SUKIBIDE, S.L.-k 2004ko martxoan jarritako 118.461,11 €-ko abala itzultzeko eskatzen du.
- 26 HIE eremuko eraikitze eta urbanizazio lanak bi fasetan egiten ari dira.
- Antolamenduan egindako aldaketen ondorioz, "Elorreta 26 HIE urbanizatzeko proiektuaren aldaketa" izeneko dokumentua egin zen. Dokumentu horren tramitazioan proiektuaren separata bat, exekutatzeko zegoen faseari buruzkoa, aurkezteko eskatu zitzaion SUKIBIDERi.
- Aipatutako dokumentuaren arabera, bigarren faseko obrak 651.051,57 €-ko kostua dute.
19.531,54 euroko bi abalen batuketa urbanizatzeko gelditu diren obren kostuaren % 6a da.

Hirigintzako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorritz, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXAK SUKIBIDE, S.L. enpresaren alde emandako 118.461,11 €-ko abala kitatzeko baimena ematea. Abal hori ESKORIATZAKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO ELORRETA 26 HIERI BURUZKO PLAN PARTZIALARI DAGOZKION URBANIZAZIO KARGAK BETETZEKO bermea zen.

Bigarrena: Aipatutako bermearen originala interesdunari ematea bermearen kitapena izapidetu dezan.

4. Arau Subsidiarioetako HIE 14 "Olazarri" buruzko arau partikularraren aldaketa puntuala behin-behineko onartzea.

Aurrez derrigorrezko tramiteak egin ondoren, 2009ko abenduaren 28an Udalbatzarrak onartutako Eskoriatzako Arau Subsidiarioetako HIE 14 "Olazarri" buruzko arau partikularraren lehenengo aldaketa puntualaren dokumentua aldatzea erabaki zuen Udalbatzarrak 2010eko urriaren 27an, eta horrekin batera, onarpen horri hasierako onarpen izaera ematea eta espedientea jendaurrean jartzea hilabete batez.

Espedientea jendaurrean egon da eta hori iragartzeko iragarkiak jarri ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2010eko azaroaren 15ean, 218. zenbakia) eta EL DIARIO VASCO egunkarian (2010eko azaroaren 16an), eta eremuko jabeei ere jakinarazi zitzairen. Jendaurrean egoteko denbora horretan ez da inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu.



Aurrez esandakoan oinarrituta, Lurzoruaren eta Hirigintzako 2/2006 Legeko 91. artikulua ikusita, eta Hirigintza Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, Udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Ekaitz Uribe Rus arkitekto jaunak idatzitako "Olazar" 14 HIEri buruzko Eskoriatzako arau subsidiarioen lehenengo aldaketa puntualaren dokumentua hasiera batean onartzea.

Bigarrena: Lurzoruaren eta Hirigintzako 2/2006 Legeko 91-2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako espedientearen kopia bidaltzea Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari.

5. HEMEN GARBIKETAK S.L.-k jarritako abala itzultzea.

2006ko uztailaren 27an egindako udalbatzarrak Udalaren titularitateko hainbat ikastetxe eta udal bulego garbitzeko zerbitzua emateko kontratua esleitzea erabaki zuen, eta kontratu horretatik sortutako betebeharrak zuzen betetzeko bermetzat abala jarri zuen HEMEN GARBIKETAK S.L. enpresak 2006ko abuztuaren 30ean.

Kontratuaren indarraldia amaituta, HEMEN GARBIKETAK S.L.-k abal horren kitapena baimentzea eskatu du.

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

- **Lehenengoa.-** GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXAK HEMEN GARBIKETAK S.L. enpresaren alde emandako 4.943,38 €-ko abala kitatzeko baimena ematea. Abal hori udal instalazioak garbitzeko zerbitzua emateko kontratutik sortutako betebeharrak betetzeko bermea zen.
- **Bigarrena:** Aipatutako bermearen originala interesdunari ematea bermearen kitapena izapidetu dezan.

6.- Galde-eskeak.

Ez dago.

Eta beste gairik ez dagoenez, 19:00etan amaitutzat ematen da bilkura. Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.



1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de la sesión extraordinaria urgente y de la sesión ordinaria celebradas el 29 de diciembre de 2010.

El Sr. Merino solicita que en el acta de la sesión ordinaria se transcriba la enmienda presentada por su grupo. La solicitud es aceptada.

A las 18:40 horas, y antes de tratar el siguiente asunto del orden del día, el Sr. Merino abandona el salón de plenos.

2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA Y RESOLUCIONES

2.1.- RESOLUCIONES

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 20 de enero de 2011 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

2.2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA

El Alcalde da cuenta de los siguientes asuntos.

2.1.1.Reducción de la tasa de paro en Eskoriatza.

2.1.2. Feria sobre la sostenibilidad, que se celebrará este próximo fin de semana en Eskoriatza y donde el tema principal serán los residuos.

2.1.3. Visita de representantes de Bidegi y de la Diputación para tratar las medidas correctoras y compensatorias de la autopista.

2.1.4. Residencia: La sentencia emitida por el Juzgado de lo Social nº 1 de Eibar ante la demanda interpuesta por Aitor Urrutia Oyanguren ha devenido firme. Para el mes de febrero desde la actual Junta de Patronos se quiere hacer una propuesta de borrador de nuevos Estatutos para ser tratado y debatido en el Ayuntamiento.

2.1.5. Huelga convocada para mañana, día 27, por la reforma de pensiones. El Alcalde y su equipo apoyan y se suman a la huelga que también van a hacer los trabajadores del Ayuntamiento.

3.- Devolución de aval depositado por SUKIBIDE S.L.

- Con fecha 27 de enero de 2004, la Diputación Foral aprobó definitivamente el Texto Refundido del "Plan Parcial relativo al A.I.U. 26 – Elorreta de las NN.SS de Planeamiento de Eskoriatza.
- La eficacia de dicha aprobación definitiva quedaba condicionada a la presentación de la garantía del exacto cumplimiento de los compromisos entre el Ayuntamiento y el



promotor, por importe del 6% del valor necesario para la implantación de los servicios y ejecución de las obras de urbanización, según evaluación del Plan Parcial.

- Por este motivo, SUKIBIDE, S.L., con fecha 4 de marzo de 2004, depositó un aval por un importe de 118.461,11 €.
- Posteriormente, y como condición impuesta a las licencias urbanísticas concedidas, a las parcelas pendientes de edificación, se han depositado dos avales por un importe de 19.531,54 € cada uno.
- Ahora SUKIBIDE, S.L. solicita la devolución del aval depositado en marzo de 2004 por importe de 118.461,11 €.
- Las obras de edificación y urbanización del ámbito correspondiente al AIU 26, se están ejecutando en dos fases.
- Debido a las modificaciones introducidas en la ordenación, se redactó el documento denominado, “Modificación del Proyecto de Urbanización del AIU 26 Elorreta”. Durante la tramitación de este documento se solicitó a SUKIBIDE presentara una separata del proyecto referida a la fase pendiente de ejecución.
- Según el citado documento, las obras correspondientes a la segunda fase ascienden a un importe de 651.051,57 €.

La suma de los dos avales de 19.531,54 supone el 6% del importe de las obras pendientes de urbanización.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Urbanismo y el voto favorable de todos los corporativos asistentes, el Pleno ACUERDA:

- **Primero:** Autorizar la cancelación del aval emitido por LA CAJA DE AHORROS Y MONTE DE PIEDAD DE GIPUZKOA Y SAN SEBASTIAN ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA , a favor de SUKIBIDE S.L. , por un importe de 118.461,11 € en concepto de garantía “DEL CUMPLIMIENTO DE LAS CARGAS DE URBANIZACION CORRESPONDIENTES AL PLAN PARCIAL RELATIVO AL AREA DE INTERVENCION URBANÍSTICA A.I.U. 26 ELORRETA DE LAS NNSS DE PLANEAMIENTO DE ESKORIATZA”.
- **Segundo:** Dar traslado del original de dicho aval al propio interesado al objeto de que gestione la cancelación del mismo.

4.- Aprobación provisional de la Modificación Puntual de la Norma Particular relativa a la AIU 14 “Olazar” de las Normas Subsidiarias.

Con fecha 27 de octubre de 2010 el Pleno del Ayuntamiento, previos los trámites preceptivos, acordó Modificar el documento de Primera Modificación puntual de las NNSS de Eskoriatza relativa al AIU 14 “Olazar”, aprobado por el Pleno del Ayuntamiento el 28 de diciembre de



2009; así como dar a dicha aprobación nuevamente el carácter de aprobación inicial y someter el expediente a información pública por plazo de un 1 mes.

Sometido el expediente a información pública mediante anuncios insertados en el B.O. de Gipuzkoa Nº 218, de fecha 15 de noviembre de 2010, y periódico EL DIARIO VASCO, de fecha 16 de noviembre de 2010, así como notificados los propietarios del ámbito, no se ha presentado alegación a reclamación alguna.

Con base a cuanto antecede, visto el artículo 91 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Urbanismo y el voto favorable de todos los corporativos asistentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Aprobar provisionalmente el documento de Primera Modificación puntual de las NNSS de Eskoriatza relativa al AIU 14 "Olazar", redactado por el arquitecto D. Ekaitz Uribe Reus.

Segundo: A los efectos previstos en el artículo 91-2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, remitir copia del expediente a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

5.- Devolución de aval depositado por HEMEN GARBIKETAK S.L.

Con fecha 30 de agosto de 2006 HEMEN GARBIKETAK S.L. depositó aval en garantía del correcto cumplimiento de las obligaciones derivadas del contrato de prestación del servicio de limpieza de diversos centros escolares y dependencias de titularidad del Ayuntamiento de Eskoriatza, adjudicado por acuerdo plenario de fecha 27 de julio de 2006.

Finalizada la vigencia del contrato, por HEMEN GARBIKETAK S.L. se solicita se autorice la cancelación de dicho aval.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

- **Primero:** Autorizar la cancelación del aval emitido por LA CAJA DE AHORROS Y MONTE DE PIEDAD DE GIPUZKOA Y SAN SEBASTIAN ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA , a favor de HEMEN GARBIKETAK S.L. , por un importe de 4.943,38 € en concepto de garantía del cumplimiento de las obligaciones derivadas del contrato de prestación del servicio de "limpieza de instalaciones municipales".
- **Segundo:** Dar traslado del original de dicho aval al propio interesado al objeto de que gestione la cancelación del mismo.

6.- Ruegos y preguntas.

No se producen.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 19:00 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.